

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. ENPLEGU PRESTAKUNTZAREN LEGE ALDAKETA; ORAIN EDO INOIZ EZ
2. UMEENGATIKO ETA KONTZILIAZIOZKO DIRU-LAGUNTZAK, MURRIZKETA BERRI BAT
3. ENPRESEN ETEKINEK IGOERA HANDIA IZAN DUTE
4. OSASUNA ETA NAFARROAKO GOBERNUA
5. PROPOSAMENA: ALTERNATIBAK; IRUÑEAKO EKONOMIA SOLIDARIOAREN FERIA ETA GASTEIZKO FORMAKUNTZA SAIOA

1. ORAIN EDO INOIZ EZ

Pasadan martxoaren 22an Rajoyren gobernuak Enplegu prestakuntzaren sistemaren premiazko erreforma onartu zuen, 4/2015 Errege Dekretu-legea. Gobernuak berak beharrezkotzat jotzen zuen ondorengoagatik:

- Ordurarte eskeinitako prestakuntzak ez zuen enplegua areagotzen
- Merkatuko beharrianak eta prestakuntza edukiak ez zatozen bat
- Hornitzaileen arteko konpetentzi ezak eskaintza mugatu eta zerbitzuak garestitzen zituen.

Egoera hau, EAEn eta Nafaroan ere berdina zen.

Dekretua presaka egin izana azpimarratzekoa da. Hilabeteetan erreforma hau elkarriketa sozialaren mahaian egon da. Parte-hartzaileen esanetan, ezinbestekoa zen lege berritzea, halaber prestakuntzaren inguruko diagnostia amankomuna zen, iraganean eta gaur judizializatuak dauden egoerak ez errepikatzeko eta gaia benetan garrantzitsua delakoan zeudelako. "Harrigarria" bukaera izan da. Gobernuak azkenean erreforma argazkirik gabe, akordiorik gabe egin du, patronalaren, CCOO eta UGTren babesik gabe. Aurreko sistema eta proposatzen dena aztertuta ulertu daiteke.

Gure ustez Rajoyren erreformak bi helburu ditu:

- bat, enplegu prestakuntza gehiago zentralizatzeara, zenbait adibide: sistemak merkatu eta prestakuntza kuotaren batasuna babestu behar du, Espainiar estatuko aurrekontutik autonomia-erkidegoen artean banatu beharreko funtsak Estatuak erabakiko ditu, estatu mailako planifikazio mekanismoak ezartzen dira (beharrianen erabakitzean), autonomia-erkidegoei derrigor prestakuntzaren programazio eta ejekuzioa, ebaluaketa, kontrola, modulu ekonomikoak eta finantzazio

mailakoak ezarriko zaizkio.

- eta bi, eragile enpresarial eta sindikalen egitekoa murriztu. Eragile sozialen parte-hartzea "langileei zuzendutako prestakuntzaren diseinuan, planifikazioan eta programazioan" mugatzen da (aurrerantzean ezin izango dute prestakuntzarik eman) enplegurako prestakuntza elkarren arteko konkurrentzian egingo da, hornitzaile guztiei irekia, publiko zein pribatuekin, onartuekin eta/edo momentuko araudiarekin bat datozenekin". Hiruko Fundazioa desagertu eta Estatuko enplegu prestakuntzaren Fundazioa sortzen da, erabakiak hartzeko eremu gisa. Espainiako gobernuak osaketan gehiengo izango du eta enpresari eta sindikatuko kideez gain oraingoan Autonomi erkidegoak ere bertan izango dira.

Hala ere, etorkizuneko enplegu preskuntza sistema berrian garrantzitsuak eta beharrezkoak diren zenbait puntu oraindik ere arautzear daude.

Eta galdera garrantzitsuak ere, erantzunak nahiko argi baditugu ere, erreforma sinatu ez dutenek benetan galtzen atera dira? Konpetentzi urraketarik dago?

Euskal gobernuari dekretu honek pribatuan onartzen duena publikoki adierazteko aukera ematen dio. Nahiz eta ulertu, orainarteko sistemak modu argian patronala, CCOO eta UGT finantzatzeko modu dela, eredia babestu dute. Orain da borondate politikoa modu argian adierazteko momentua.

Eta Nafarroako gobernuak ez du askorik esan. Orain arte bezala, CEN, CCOO eta UGTri programak zuzenean emateko eredia nahiago du eta. Eredua aldatzea premiazkoa da.

2. UMEENGATIKO ETA KONTZILIAZIOZKO DIRU-LAGUNTZAK, MURRIZKETA BERRI BAT

Hilabete honetan indarrean sartu da umeengatiko eta kontziliaziozko (menpekoen zaintzarako lanaldi murrizketa edo eszedentzi egoerak) diru laguntzen araudi berria. Bietan murrizketa da nagusi. Lehenak eskubide badira ere, bigarrenak urtero aurrekontuetan bideratutako partidaren menpe dude. Horregatik, azken urteetan, apirila parterako dirua bukatu eta hurrengo urteko aurrekontuaren arabera ordaindu dira, beti atzerapenarekin noski. Aurten 31,37 milioi euro bideratu badira ere, 2014tik ordaindu gabe zegoena kenduta, 9,9 milioi euro baino ez dira gelditzen.

Bai umeengatiko zein kontziliaziozko diru laguntzak aurrera gurasoen errentaren arabera emango dira. Horrela unibertsal zentzua galduz. Eta kalkulua familiaren errenta estandarizatuaren arabera egingo da (familiako errentari etxeko ezaugarrien arabera bestelako kenkari batzuk; emakume ezkongabea, genero-indarkeria edo ezgaituak adibidez, aplikatuta geratzen denari deritzo) eta ez orain arte bezala lanbidearteko gutxieneko soldatan oinarrituta.

Umeengatiko laguntzen kasuan, erreformak bigarren seme-alabatik aurrera izango du eragina (lehenengoagatik 400 eta 900 euro bitarteko diru laguntza jasotzen jarraituko da).

- Bigarren umeagatik eta errenta 20.000 eurotik behera dituzten familiek 1.800 euro jasoko dituzte (orain arte baino 300 euro gehiago), 20.000 eta 30.000 bitarteko errenta dutenek 1.000 euroko diru laguntza (500 euro gutxiago) eta 31.000 eurotik gora errenta duten familiek 800 euro (700 gutxiago).
- Hirugarren eta ondorengoengatik, errenta baxuentzat 900 euro

mantetntzen dira, 20.000 eta 30.000 bitarteko errentarekin 500 euro (lehen baino 600 gutxiago) eta 30.000 eurotik gora 400 (700 gutxiago).

Kontziliaziozko diru laguntzekin ere berdina suertatzen da. Irizpidea errenta maila da, benetako arrazoia aurrekontu murrizketa delarik eta ez beste ezer. Hauek hemetik aurrera, bi errenta mailatan ezberdintzen dira:

- Familiako errenta estandarizatu 20.000 eurotik behera denean, diru laguntza maila mantendu egiten da, eszedentzi kasuan adibidez eta urte osokoa izanik, 3.255 euro.
- 20.000 euroatik gorako errenta estandarizatu bada, kopuruak gutxitu egiten dira. Aurreko adibidearekin jarraituz, 520 euro gutxiago, 2.735 euro, %16ko murrizketa.

Diskurtso ofiziala, jaiotze-tasa igotzeko beharra eta errenta baxuagoak laguntzeko premia, alde batera utzita, laguntza mota hauen unibertsal izaera defendatzea lehentasun da. Horrelako argudio faltsuekin, errealitatea oztundu eta herritarrei ziria sartzeko borondatea baino ez dago. Neurri hauen benetako arrazoia, bakarra murrizketak dira, oraingoan ere izaera sozialeko mozketak, pobrezia gure jende artean areagotuz.

3. ENPRESEN ETEKINEK IGOERA HANDIA IZAN DUTE

Sarri entzuten dugu krisia amaitu dela. Baina era berean lelo hori plazaratzen dutenek esaten dute langileok gerrikoa estutzen jarraitu behar dugula: hauen errezeta da soldatak ez igotzea, lanaldia ez murriztea eta malgutasuna gero eta handiagoa izatea.

Espaniar estatuan Burtsan kotizatzen diren enpresek 2014an izan zituzten etekinak ezagutu ditugu. Pozik egoteko moduan dira: 33.216 milioiko etekinak pilatu zituzten, hots, aurreko

urtean baino %64 gehiago.

Halere, enpresen emaitzak horrela hazita ere, ez da enplegu gehiago sortu, ezta lan-baldintzak hobetu ere. Horregatik, egoera honetan are nabariagoa da aberastasunaren banaketa justua egiteko beharra.

Egoera ekonomikoa "hobetzea" noren onerako den ikusten ari gara: enpresen kontu eta etekinentzat. Haatik, langile-klaseak ikusten du bere baldintzak ez direla hobetzen; aitzitik, kasu askotan okerrera egin dute. Hau gertatzen da kontratu berri gehienekin; oso baldintza kaskarrak dituzte, eta ondorioz ez dute pobreziatik irteteko aukerarik ematen.

Berriro diogu, sakoneko debatea aberastasunaren banaketan datza. Aberastasuna beti ari da banatzen, hazkunde zein krisi ekonomiko garaian. Eta azken hamarkadetan ikusi dugu aberastasuna behetik gora banatu dela, hots, partitzeko modua gero eta injustuagoa bilakatu dela eta desberdintasuna asko areagotu dela.

Azken urteetako eskubide laboral eta sozialen murrizketek joera horren oinarria ezarri dute. Erronka itzela daukagu; antolakuntza kolektiboa behar dugu aurre egiteko legediari esker gero eta botere handiagoa metatzen ari direnei.

4. OSASUNA ETA NAFARROAKO GOBERNUA

Osasuna bere pasioa dela esaten duenik bada, hainbat eta hainbat lagun futbol talde bat animatzeko elkartzeko gaitasuna duena. Bada futbol talde bat besterik ez dela pentsatzen duenik ere, beste bat gehiago. Eta bada sekula Osasuna taldeagatik arduratu ere egin ez dena.

Baina futbol talde batek norberarentzat suposatzen duenaz gain, gardentasun falta, itzalean aritzea eta jarrera mafiosoak daude. Eta hauetaz inguratu da Osasuna azken aldian

2014ko azaroaren bukaeran Nafarroako Parlamentuak Osasunaren Legea onartu zuen UPN, PSN eta PPren aldeko bozkekin. Lege hau Osasunak Ogasunarekin zuen 53 milioi eurotako zorrari irtenbidea emateko egin zen.

Legeak Nafarroako Gobernuak zorra kitatzea aurreikusten du Osasunak bere ondasunak (Sadar eta Tajonar besteak beste) ordainetan emanda, eta baita Osasunari 15 urtez 4 milioi eurotako abala ematea ere.

Beraz, Osasunaren aferak nafar guztioi eragin diela dagoeneko, Ogasunaren eta Nafarroako Gobernuaren bitartez.

Baina Lege hau eskandalu guztiak azaldu baino lehen egin zen.

Lehena zenbait partiduren ustezko erosketa izan zen.

Baina larriena, berriz, Zuzendaritza berriak Osasunaren kontuetatik 2,4 milioi euro falta zirela salatu zuenean etorri zen.

Honen ondoren, gaiaz arduratzen den Epaitegiak 3,8 milioietara igo zuen zenbatekoa. Higiezin bi agenteei egindako ordainketak, beste kirol agente bati egindakoak, zer lan egin zituen ez dakiten beste enpresa bati ordaindutakoa eta esku-dirutan ateratako 1,3 milioi euroak dira ikertzen ari direnak.

19 pertsona dira ikertuak afera hau dela eta, hauetatik 2 kartzelatik pasa direnak (eta aske utzi dituztenak karguekin), eta bidegabeko jabetzea, dokumentuen faltsutzea eta sozietate delitua bezalako delitu larriak dira ustez egin direnak.

Egoera honetan irakurketa asko egin eta ondorio asko atera daitezke, baina ondorengo azpimarratu nahi dugu: nola pilatu dezake

futbol talde batek 53 milioi eurotako zorra Ogasunarekin? Nola onartu daiteke Lege bidez zor hori bere gain hartzea kontuetan horrenbesteko irregulartasunak dituen talde batekin?

Denetan larriena Nafarroako Gobernuak Osasunaren irregulartasunen berri bazuela pentsatzeko zantzu garbiak daudela da.

Batetik Idoia Nievesek (Ogasuneko buru izandakoa) dimisioa aurkezteko eman zuen gutunean Osasunaren egoera izan zen arrazoietakoa bat.

Beste alde batetik Ogasuneko ikuskatzaile batek Osasunaren ordainketa susmagarri (gutxienez) baten berri izan zuela 2008an ikertzen ari dira, eta Izco-k (orduko Osasunako presidentek) Kontseilari batekin Ogasunak "beste alde batera begiratzeko" adostu zuela.

Kontuz! erakundeak ere salatua du Ogasunarekin 1,5 milioi euro baino zor pilaketa handiagoa izanez gero ezinezkoa dela zor hori gehiago atzeratzea baldin eta ez bada Nafarroako Gobernuarekin adostu.

Hau UPNren Gobernuaren gardentasun faltaren eta zenbait emandako itzalaren beste adibide bat da.

5. PROPOSAMENA: ALTERNATIBAK; IRUÑEAKO EKONOMIA SOLIDARIOAREN FERIA ETA GASTEIZKO FORMAKUNTZA SAIOA

Datozen egunetan hainbat hitzordu ditugu ekonomia kapitalista eta jasangaitz honi alternatibetan aurrera egiteko.

Lehendabizikoa ostiral honetan, hilak 17, goizeko 9:30etan Gasteizko Letren Fakultatean izango den Nazio Kontseilu zabalean izango da.

Bertan 2015eko Alternatibaz hitz egingo da, TTIP-ari buruz eta enpresa solidarioen, energia kontsumorako kooperatiben, tokiko monetaren eta elikadura burujabetzaren berri izango dugu.

Beste hitzordua Iruñean izango da. Hilaren 17, 18 eta 19an Azoka Soziala eta Ekonomia Solidarioaren Feria izango baita autobus geltoki zaharreen.

Azoka hau REAS-ek antolatzen du (Red de Economía Alternativa y Solidaria), eta ekonomia solidarioaren eta kontsumo arduratsuen alde egiten duten erakundeen eremu bat da.

Feria honen helburua ekonomia solidarioa indartzea eta ikustaraztea da, egungo krisiari hainbat sektoreetan (produktiboan, zerbitzuetan, komertzializazioan, kontsumoan, finantzetan, enpresa ereduetan, proiektu sozialetan eta abar) erantzun errealak eskaintzen dizkion eta hazten ari den errealitate sozioekonomiko bat bezala aurkeztea.

Feria honetan tokia izango dute baita ere Manu Robles Fundazioak eta Bizi!-k, beste 75 eragilerekin batera, hala nola eragile sozialak, zerbitzuen ingurukoak, artisautza edo elikadura arlokoak.